

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bi harreman mota izango ditugu. Alde batetik salmenta pertsonala non gure bezeroak langileen aurrez aurreko laguntza jasotzeko aukera izango dute denda fisikoetan. Horrela, arazoren bat egotekotan zuzenean jasoko dute erantzun bat eta honekin batera aholkuak emateko aukera izango dugu.

Horretaz gain, bisitak egingo ditugu erakunde publikoetako bulegoetara eta enpresa pribatuetara gure proiektua jakitera emateko. Bisita hauetan, gure proiektuaren ideiak azalduko dizkiegu bezeroei hauek erosteaz konbentzitzeko. Azalpenak emateko aurkezpenez baliatuko gara bai digitalki, bai fisikoki (panfletoen bidez). Gainera, lehenengo drona dohainik eskainiko diegu gurekin akordioa egitea erabakitzen badute. Akordioa luzatzen badute, drona %50eko deskontuarekin eskainiko diegu.

Beste alde batetik autozerbitzua ere eskainiko dugu, aplikazio bat izango dugu eta gure bezeroak hortik erosketak egin edo gurekin kontaktuan jarri ahal izango dira. Era berean, aplikazioaren bidez gure bezeroak haien esperientziak elkarbanatzeko aukera izango dute eta horrela marketina egiteko aprobetxatuko dugu.

Aipatu beharra dago gure drona bideratuta egongo dela garapen jasangarriaren helburuaren alde dauden enpresei hau da, kutsadura murriztearen eta uretako bizimodua hobetzearen helburua dutenak. Bezeroengana modu eraginkor batean heltzeko azoketara gure produktua eramango dugu eta han erakusketak, hitzaldiak eta abarrekoak egingo ditugu ingurumenari buruzkoak. Honekin batera, udaletxeekin akordioak egingo ditugu gure proiektuari buruzko eta ingurumenari buruzko ekitaldiak antolatzeke.

Gure bezeroak, batez ere, publizitatearen bidez bereganatuko ditugu. Iragarkiak jarriko ditugu telebistan, egunkarietan, Interneten, aplikazioetan eta sare sozialetan adin guztietako bezeroak bereganatzeko. Azken finean, gure bezeroen adinak nahiko desberdinak izango dira: erakunde publikoetakoak seguruenik nagusiagoak izango dira enpresa pribatuetakoak baino, izan ere hauek ekintzaile gazteagoak izango dira. Bezeroekin harremana estutzeko, plastiko bilketa kolektiboak egingo ditugu drona erabiliz. Beste alde batetik, Administrazio publikoak bereganatzeko, haien telefonoetara deitu eta haien bulegoetara joango gara gure produktua eskaintzera. Horrela, laguntza gehiago jasoko dugu.

